

Erabilerraztasun adierazpena

Irungo Udalak bere webgunea erabilerraz egiteko konpromisoa hartu du, [Sektore publikoaren webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen erabilerraztasunari buruzko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuarekin](#) bat etorritik, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko (EB) 2016/2102 Zuzentaraua iraultzen duen.

Erabilerraztasun adierazpen hau <https://www.irun.org/> webguneari dagokio: beste domeinu batzuetatik kapsulatzen diren edukiak kanpoan geratzen dira.

Betetze mailaren egoera

Webgune honek partzialki bakarrik betetzen du 1112/2018 Errege Dekretua, jarraian aipatzen diren elementuak ez baitatoz bat harekin.

Eduki ez-erabilerraza

Jarraian aipatzen den edukia ez da erabilerraza, arrazoi hauek direla eta:

a. 1112/2018 Errege Dekretuarekin bat ez etortzea

- Irudi batzuk ez daude etiketatuta; alternatiba testual generikoa dute; edo informazioa, egitura eta erlazioak ez ditu determinatzen softwareak edo ez dute testu gisako alternatibarik [UNE-EN 301549:2019 arauaren 9.1.1.1. eta 9.1.3.1. eskakizunak, eduki ez-testualari edo informazioari eta erlazioei buruzkoak]
- Baliteke grabatutako bideo batzuek azpitolurik ez izatea [UNE-EN 301549:2019 arauaren 9.1.2.2. eskakizuna, grabazioen azpitoluei buruzkoa]
- Baliteke orrialde batzuetako testu edo irudien kontraste erlazioa ez izatea 4.5:1ekoa gutxienez [UNE-EN 301549:2019 arauaren 9.1.4.3. eskakizuna, gutxienerako kontrasteari buruzkoa]
- Baliteke orrialde batzuetan testuaren ordez testu irudiak erabili izana informazioa emateko [UNE-EN 301549:2019 arauaren 9.1.4.3. eskakizuna, testu irudiei buruzkoa]
- Puntualki, baliteke estekaren baten xede espezifikoa testu bidez ez zehaztea [UNE-EN 301549:2019 arauaren 9.2.4.4. eskakizuna, esteken xedeari buruzkoa].

b. Gehiegizko karga

- Ez dagokio.

c. Edukia aplikatu beharreko legediaren esparruan ez sartzea

- Baliteke hirugarrenen edukiak izatea, Udalak garatu ez dituenak eta Udalak kontrolatu ezin dituenak, hala nola bulegotika artxiboak.
- Badira .doc formatuan argitaratutako dokumentu urri batzuk, 2018ko irailaren 20a baino lehen sortuak –formatu horrek ez ditu behar bezala betetzen erabilerraztasun baldintzak–.
- Baliteke aurrez grabatutako eta 2018ko irailaren 20a baino lehen argitaratutako beste eduki urri batzuk izatea, erabilerraztasun baldintza guztiak betetzen ez dituztenak.

Erabilerraztasun adierazpen honen prestakuntza

2021eko irailaren 23an prestatu zen erabilerraztasun adierazpen hau.

Adierazpena prestatzeko erabilitako metodoa 2021eko irailaren 23an egindako autoebaluazio bat izan zen.

Adierazpena 2021eko irailaren 23an berrikusi zen azkenekoz.

Oharrak eta kontaktu datuak

1112/2018 Errege Dekretuaren 10.2.a) artikuluekin bat etorriz, erabilerraztasun baldintzei buruzko jakinarazpenak egin ditzakezu, hala nola honako hau:

- Webgune honek eskakizun jakin batzuk betetzen ez dituela jakinarazi
- Edukia eskuratzeko beste zailtasun batzuk jakinarazi
- Kontsultak eta webgunearen erabilerraztasuna hobetzeko iradokizunak egin

Honako hauek aurkez ditzakezu:

- 1112/2018 Errege Dekretuaren eskakizunak ez betetzeari buruzko kexa
- Informazio erabilerraz hau eskuratzeko eskaera:
 - 1112/2018 Errege Dekretuaren 3.4.) artikuluen arabera Errege Dekretuaren aplikazio eremutik kanpo dauden edukiak
 - Gehiegizko karga dakartela-eta erabilerraztasun baldintzak betetzetik salbuetsita dauden edukiak
 - Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aipatzen dituen gainerako aukerak.

Informazio erabilerraza eskuratzeko eskaerak berau arrazoizkoa eta bidezkoa dela egiaztatzeko beharrezkoak diren egitate eta zioak zehaztu behar ditu, argi eta garbi.

Irungo Udalean eskumena duen zerbitzuak jaso eta tratatuko ditu aipatutako jakinarazpen, kexa eta eskaerak.

Aplikazio prozesura

Behin informazio erabilerraza eskuratzeko eskaera edo dagokion kexa aurkeztuta berau ezesten bada, interesduna erabakiarekin ados ez badago edo erantzunak 12.5. artikulua finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez baditu, interesdunak erreklamazio bat aurkeztu ahalko du. Era berean, hogeitaz egun baliodun igaro eta erantzunik jaso ez denean aurkeztu ahalko da erreklamazioa. Abisu, Kexa eta Iradokizun Zerbitzuaren bidez aurkez daiteke erreklamazioa, Irungo Udalaren egoitza elektronikoan (<https://www.irun.org/es/sede> helbidean), baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aipatzen dituen gainerako bideetatik.

Irungo Udalean eskumena duen zerbitzuak jaso eta tratatuko ditu erreklamazioak.

Webgune honetako edukiren bat erabilerraza ez dela antzematen baduzu edo webgune honen erabilerraztasunari buruzko zalantzarik baduzu, helbide elektroniko honen bidez jakinaraz dezakezu: participacion@irun.org